Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 383

Urriak 15, 2020

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Okencasa programa
4 Bioterra
5 Itzulia
6 Minbiziaren Aurkako Elkartea
7 Labore Txingudi
8 Kirolak: Irungo Txirrindulari Elkartea
9 Kirolak: Txingudi Errugbi Kluba
10 Luna ile-apaindegia
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Trikuharri elkartea
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako eguneko zentroak

Egun osoz edo egun erdiz

Garraio egokitua Irun, Hondarribia eta Hendaiaraino

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1920. urteko aldizkaririk topatu ezean, 1918. urteko aldizkariak egokiak dira duela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak aztertzeko. Horrela, 1918ko urriaren 27an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak islatzen ditu.
Aldizkariaren lehen albistean hilabete euritsu baten ostean, jendea kalera ateratzen hasi dela aipatzen da. Hurrengo artikuluan E. Esparzak "Novelas y novelistas" izeneko liburuaren berrikuspena egiten du. "¡Aquellos tiempos!..." titulua duen testuan Titok aitzinako oroitzapenen inguruko gogoeta argitaratzen du. Jarraian, "Charlas Femeninas" atalaren kapitulu berri bat argitaratzen da, kasu honetan, emakumeen gripe epidemiaren aurrean jokatuko duten paperaren inguruan hitz egiteko. "Asuntos de higiene pública" titulua daraman idatzian Irungo higienea eta garbitasunarekin lotutako idatzia irakur daiteke, bertan "Thethe"-k hiriaren erdigunean ez dauden beste hiriko toki batzuetan garbiketa eskatzen du.

"Cosas de la guerra" atalean R.Y-k I. Mundu Gerrarekin lotutako azken ekitaldien laburpena egiten du. Ricardo Barojak idatzitako testuan Ramón Zabaleta Beran ezkondu delaren albistea ematen da, ezkontzaren inguruko xehetasunak azalduz. Satarkaren "Txantxangorria" olerkiaren ostean, kirol kronikan Real Unioneko futbol jokalari bat laguntzeko antolatutako diru-bilketaz hitz egiten da. Ostean, Gipuzkoako Futbol Txapelketarako kanporaketa partiduekin lotutako informazio guztia argitaratzen da. "De la cuenca" atalak Elizondo eta inguruko herrietako albisteak biltzen ditu atal berean.

"Vida de pueblo. Las tertulias" atalean, berriz, aurreko zenbaki batean argitaratutako artikulu baten harira piztutako iskanbila dela eta azalpenak ematen ditu idazleak. Hirian gertatutako anekdota bitxi baten ostean, "Hace años ...", "Ecos de sociedad" eta "De tareas" atal finkoekin amaitzen da "El Bidasoa" aldizkariaren zenbakia publizitatearen aurretik.

Argazkiak:
G53173: Mendibileko bizitoki-eremuan, lehen planoan Colón pasealekuko eraikinak eta atzealdean Hondarribiko etxeak ageri direlarik 1920. hamarkadan.
G57710: Ibaietako gainetik, Ermita kalea, Arbeseko laborantza zelaiak eta Uranzu kaleko trinketa, besteak beste, 1914. urtearen aurretik.
G38413: San Martzial kalea, eskuinean San Juan Harri zutabea eta atzean Vicenta Olazabalen etxea ageri delarik, 1918. urtearen aurretik.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

OKencasa: Mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituztenak babesteko programa

OKencasa etxebizitzan bertan mendekotasuna duen adineko senitarteko bat zaintzen duten pertsonei zuzendutako laguntza-programa da. Programaren helburua zaintzaileen bizitza-kalitatea hobetzea eta zainketa-lanaren eguneroko jarduna erraztea da. 'Zaintzen dutenak zaintzen' premisari helduta, OKencasak prestakuntza, antolakuntza-tresnak, laguntza psikosoziala eta zerbitzu erabilgarrietako abantailak uztartzen ditu, senide zaintzaileak laguntzeko.

OKencasa programa etxean mendekotasuna duten adineko senideak dituzten 1.000 pertsonari hedatu zaie, Zaindoo gailu mugikorretarako aplikazioaren bitartez. Horren bidez, harreman eta laguntza-bide bat sortzen da zaintzailearekin, eta efektu positiboak sortzen ditu bere ongizatean, nahiz eta zaintzaileak halako teknologiak inoiz erabili ez baditu ere. Cristina Laborda Ongizate arloko ordezkariak adierazi duenez, "une honetan funtsezkoa da adinekoei eta haiek zaintzen dituztenei laguntzea". Zentzu horretan, Iñigo Kortabitarte OKencasa ekimenaren bultzatzaileak gaineratu duenez, "Familia zaintzaileek egiten duten lan handia ikusaraztea eta aitortzea funtsezkoa da".

Programa, funtsean, mendekotasuna duten senideak (dementziak, mugikortasun murriztua, osteoartrosia, hezurrak eta artikulazioak, bizkarrezurra eta bizkarra, osteoporosia, gaixotasun kardiobaskularrak edo zerebrobaskularrak, Parkinson-en gaixotasuna edo diabetesa) zaintzen dituzten pertsonei zuzenduta dago. Ongizate arloko Cristina Laborda ordezkariak azaldu duenez, "bizi dugun egoera zail honen ondorioz, gogor ari gara lanean pandemia hau gehien pairatzen ari diren kolektiboetako bati laguntzeko" eta Labordaren hitzetan proiektu hau "ezin hobeto" egokitzen zaio lan horri.

Iñigo Kortabitarte ekimenaren bultzatzaileak azaldu bezala, "helburua zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzea da". Proiektuan parte hartzeko, beste betekizun batzuen artean, zaindu beharreko mendeko pertsonak mendekotasun-maila bat aitortua izatea beharrezkoa da. Plazak mugatuak direnez, aukeraketa bat egingo da betekizunak betetzen dituzten familien artean. Interesdunek 943 003 723 telefono-zenbakira deitu dezakete programaren baldintzen eta ezaugarrien berri izateko.

Zaindoo aplikazioa

OKencasa laguntza-sistemara sartzeko atea Zaindoo gailu mugikorretarako aplikazioa da. Horren bidez, interakzio-bide erraz eta efektibo bat ezartzen da zaintzailearen eta OKencasaren artean. Harreman horri esker, zainketaren eta zaintzailearen egoeraren eboluzioaren jarraipena egin daiteke. Zaindoori esker, zaintzaileak aurrez aurre eskuratzea zaila litzatekeen tresnak, baliabideak eta trebakuntza erabil ditzake.

> **"Une honetan funtsezkoa da adinekoei eta haiek zaintzen dituztenei laguntzea"**
> Cristina Laborda, Ongizate arloko ordezkaria

OKencasak familian zainketa-lanak koordinatzen laguntzeko eta erantzunkidetasuna errazteko zenbait tresna ditu. Online prestakuntzaren bitartez, prestakuntza-pilulak eskaintzen dira senidea hobeto zaintzen ikasteko, bai eta nork bere burua efikaziaz zaintzeko ere, zainketak zaintzailearen osasun fisikoan eta emozionalean duen eragina arintzeko. Era berean, OKencasak laguntza modu ez presentzialean jasotzeko aukera ematen du eta hori bereziki garrantzitsua da COVID-19ak eragindako egungo egoeran.

Gainera, OKencasaren erabiltzaileek familia-zainketaren espezialista bat dute; haien babesa da, une konplikatuetan. Era berean, zaintzaileentzako erabilgarriak izan daitezkeen zerbitzuak eskuratzeko erraztasunak dituzte, fisioterapia, etxearen egokitzapena eta administrazio-kudeaketetarako lege-aholkularitza edo gestoria, baldintza ekonomiko onuragarrietan.

Beharrezko babesa

Hurrengo bi hamarkadetan zehar, baby boom-aren belaunaldiak 65 urte beteko ditu eta horrek esan nahi du Euskadin, urtero, 33.000 pertsona gehiago izango direla 65 urtetik gorakoen biztanleria-taldean. Faktore horrek eta bizi-itxaropen handiagoak eta gaixotasun neurodegeneratiboen gorakadak mendekotasuna duten adineko pertsona gehiago izatea ekarriko dute, eta horietako gehienak senideek zaintzen dituzte etxean.

Proiektuaren hastapenak

OKencasa 2018tik 2020ea programa pilotu gisa abiatu zen Donostiako 210 familia lagunduz. Orain, berriz, mendekotasuna duten senideak zaintzen dituzten 1.000 pertsona doan laguntzea da xedea. Hori lortzeko, Irunera, Pasaiara, Errenteriara eta Ataunera ere hedatuko da proiektua.

OKencasak baliozkotze zientifiko sendo baten berrespena du. Izan ere, UPV/EHUko adituek, Igone Etxeberria doktoreak zuzenduta, programaren efektu positiboak berretsi dituzte. Hau da, proiektuak zaintzaileen gainkarga murriztea, autoeraginkortasuna handitzea eta gogobetetasun handiagoa eragitea lortu baitu. Horretarako, 2019ko apiriletik 2020ko otsailera bitartean 210 familiarekin azterlan kliniko bat egin zuten. London School of Economics-eko izen handiko ikerlari Joan Costa i Fontek zuzendutako talde batek, bere aldetik, ziurtatu du OKencasaren metodologiak sistema publikoaren zenbait arlotan aurreztea dakarrela.

Hori dela-eta, OKencasak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailaren eta Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren bultzada eta Donostiako, Pasaiako, Errenteriako, Irungo eta Ataungo udalen inplikazioa ditu.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Bioterra, 17 urte klima-aldaketaren borrokan arreta jartzen

Urriaren 9tik 12ra Ficobako hiru pabilioiak Bioterra azokaren 17. edizioaren erdigunea izan ziren. Momentuko osasun krisialdia dela eta azoka ekaineko data ohikoetatik kanpo antolatu eta 4 guneko iraupena izan du. Prebentzio- eta segurtasun-berme handienak eskaintzeko azokaren espazioak egokitzeaz gainera, aurtengo edizioan sarrera doakoa izan da.

Bioterrak azokaren 17. edizioa ospatu berri du, hau da, Ficoba erakustazokaren adinako bizitza duen urteko ekitaldi jendetsuenetako bat izan ohi dena. Aurtengo edizioan 85 erakusketarik parte hartu dute azokan. Erakusketariak Ficobako hiru pabilioietan sakabanatu ziren, azokaren egitura birrantolatu eta korridoreetan bisitarien arteko segurtasun distantziak errespetatzea posible izan zedin inoiz baino tarte gehiago, ia 8 metroko distantziak, utzi zirelarik.

Humagic Taller Creativoko Nuria Garcíak Bioterran 10 urtez erakusketari gisa parte-hartzeagatik errekonozimendu berezia jaso zuen José Antonio Santano Irungo alkatearen eskutik. “Egindako lanarengatik errekonozimendua jasotzea oso pozgarria da”, azaldu zuen Nuria Garcíak saria jaso ostean. Bioterra azoka asko gustatzen zaiola onartu du erakusketariak, azokaren izaera hurbilaz gainera, bisitariek erakusketarien lana asko eskertzen baitute. Aurten gainera, pandemiaren erdian azokaren antolaketa ohi baino pozgarriagoa dela adierazi du Nuria Garcíak, “zazpi hilabetez lan egin ezinean ibili ostean, Bioterra aurrera ateratzeko egindako esfortzua bereziki eskertzen da”.

Hitzordu arrakastatsua

Aurreko edizioetan bezala, Bioterra hainbat autonomia erkidegotako eta Frantziako erakusketariak erakartzeko gai izan da. Euskal Autonomia Erkidegoan 28 erakusmahai izan dira, horietatik 20 gipuzkoarrak izan direlarik. Gainontzeko erakusketariak Nafarroa (14), Madril (8), Katalunia (7) eta Andaluziatik (6) etorritakoak izan dira.

Martta Irigoyenek Biharko Lurraren Elkarteko ordezkari gisa azokaren hastapenetatik Bioterrara erakusmahai batekin hurbildu izan direla azaldu zuen . Bioterra bezalako azoketan parte hartzeak elkartearen lana ikustarazteko duen garrantzia azpimarratu zuen Martta Irigoyenek azalduz, “inguruko laborari txikien lana ikustarazteko oso garrantzitsuak dira honelako azokak”. Azokaren azken edizioetan zehar bisitarien artean produktuen jatorria eta kalitate maila ezagutzeko galderek gora egin dutela ikusi dute BLE elkarteko kideek. Zentzu horretan, urriaren 9ko goizean zehar ogi eta gazta asko saltzen ari zirela azaldu zuen Martta Irigoyenek, bisitariengan arto gorriak interes handia pizten ari zuela baieztatu ostean.

Martta Irigoyen, Biharko Lurraren Elkarteko ordezkaria Baimendutako gehienezko edukiera 600 pertsonakoa izateak, zubian zehar Ficobara hurbildu diren pertsonei bisita bereziki lasaia egiteko aukera eman die. Bisitari gehienak Gipuzkoakoak izan dira, % 87, eta lurraldeko ia eskualde guztietakoak, batez ere Irun, Donostialdea eta Oarsoaldekoak. Nabarmentzekoa da, halaber, Bizkaiko (% 4), Frantziako (% 4) eta Nafarroako (% 3) ikusleen parte-hartzea. Gainera, aurtengo edizioan azokarako sarrera guztiz doakoa izan da.

M. Navarro Bioterra azokako ohiko bisitaria da eta azoka bisitatu ostean apur bat atsekabetuta dagoela onartu zuen , izan ere, aurtengo edizioak eta aurrekoen artean alde handia nabaritu baitu. M. Navarrok azaldu zuenez, “urtero erosten ditudan gauza berdinak erosi ditut aurten ere, hau da, olioa, ardoa, gazta eta orain eztia erostera goaz”. “Beste urte batzuetan kremak erosi izan ditut, baina, orain nik neuk egiten ditut”, gaineratu du azokako bisitari ohikoak. Azoka ekainean bertan behera gelditzen zela jakinarazi zenean albistea atsekabe handiz hartu zuela onartu du Navarrok, beraz, formatu murriztuagoa izan erren, azkenean Bioterraren 2020ko edizioaren aurrera ateratzearekin pozik agertu da.

Konpromisoa ardatz

Era berean, azokan jorratzen diren hainbat arlotako adituek ez diote Bioterrak proposatutako hitzorduari hutsik egin nahi izan. Lau egunez produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azokan gai ugari landu ziren. Besteak beste, produktu eta zerbitzu arduratsuen balioaz, etxeko erosotasunaz eta ongizateaz gozatzeko gakoez, plastikorik gabe nola eta zergatik bizi, etxe osasuntsu baterako toxikoen garbiketaz, agroekologiaz, nola saihestu disruptore endokrinoekiko esposizioa, komunitate energetikoez edo osasunaren alde egitearen edo gaixotasunari aurre egitearen arteko dikotomiaz.

Garapen Jasangarriko Helburuekin bat

Bioterrak bat egin du Nazio Batuen 2030 Agendarekin. Agenda hori pertsonen, planetaren eta oparotasunaren alde inoiz garatu den ekintza-planik handiena da, eta garapen jasangarriko 17 Helburu (GJH) eta 169 jomuga ditu. Ficobak 7. GJH, 12. GJH eta 13. GJH sustatzeko ahaleginak egin ditu, hau da, energia eskuragarria eta ez kutsagarria sustatzeko eta garapen sozioekonomikoari eta klima-aldaketaren aurkako borrokari laguntzeko.

Ekarpen horren zati bat Bioterra antolatuz egiten da; izan ere, Bioterrak, erakusketa- eta dibulgazio-guneetan, gai horri heldu zion, adibidez, “17 helburu gure mundua eraldatzeko” UNESCO Etxea erakusketaren bidez edo “Pobreziaren aurkako borrokan Ingurumen Iraunkortasunaren aldeko Sarearen “Ingurumen jasangarria pobreziaren aurkako borrokan” erakusketa ibiltariaren bidez.

Irun Itzuliaren abiapuntua izango da

Irungo Udalaren webgunean kirol probarekin lotutako informazioa biltzeko atal berezia sortu da

Irun urriaren 20an Espainiako Itzuliaren 75. edizioaren abiapuntua izango da. Ficobatik Gaintxurizketara, txirrindulariek hiriko lekurik bereizgarrienak zeharkatuko dituzte, 8 kilometroko ibilbide batean barrena. Hiria kirol hitzordu garrantzitsu honen abiapuntu izateko prestatzen ari da.

Hasiera batean, Espainiako Itzuliaren lehen hiru etapak Herbehereetako bi eskualderen artean jokatzekoak ziren, Utrecht eta Ipar Brabante arten. Hasierako plangintzaren arabera Irun 4. etaparen abiapuntu izan behar zen abuztuaren 18an. Pandemiarne ondorioz lehen ideia hori baztertu ostean, Euskaditik egingo da azkenean Itzuliaren irteera. Hain zuzen ere, ia 5 hamarkada dira Espainiako Itzulia Euskadin hasten ez zela.

Kiko García Espainiako Itzuliko kirol zuzendari eta zuzendari teknikoak azaldu duenez, Itzuliko antolakuntzak Frantziako Tourraren adibidea jarraituz antolatu du urriaren 20an Irunen abituko den kirol probaren edizio ezohikoa. Kiko Gacíak adierazi duenez, "Itzulia etapa ezohiko batekin hasiko da 1. etapa gain bat igotzen amaitzea normalean gertatzen ez den zerbait delako". Ondorioz, parte-hartzaileak sasoi onean iritsi beharko dira probaren hasierara, lehen egunetik bidean erronka handiak aurkituko baitituzte. Izan ere, Itzuliaren 75. edizioan, 35 urteren ostean, lehen aldiz probak 21 etapa baino gutxiago izango ditu, hau da, aurten guztira 18 etapa antolatu dira.

Lehenengo etapak Irun eta Eibarreko Arrateko santutegia lotuko ditu 169,5 kilometroko ibilbide baten bitartez. Horrela irteera neutralizatua hiriko kaleetan barrena egingo da, hiriko leku eta kale bereizgarrienak zeharkatuz. Udal Kirol ordezkaria den Borja Olazabalek adierazi duenez, "Espainiako Itzuliko abiapuntua izatea oso kirol ekitaldi garrantzitsua da, eta maila guztietan eragina du". Txirrindulariek inguru-menditsuarekin lehen kontaktua izango dute lehenengo etapa honetan, Karabietako portua (2.) eta Arrateko gainaren (2.) igoerarekin. Igoera gogorregiak izan ez arren, pelotoiaren sailkapen orokorrean lehen desberdintasunak markatzeko balioko du.

Itzulia hirian barrena

Ficobatik Gaintxurizketara, txirrindulariek Irun zeharkatuko dute, iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera, 8 kilometroko ibilbide batean barrena. Erakustazokatik atera, eta, saihesbidetik, Plaiaundiko parke ekologikoan barrena, Zubi-Muxuraino joango dira. Han, Hondarribia kaletik sartuko dira, eta, Colón ibilbide osoan barrena, Iparralde Etorbide aldera joko dute, eta, gero, Santiago aldera; alegia, Irunen erromatar iraganaren hondarrak dauden auzora.

Ondoren, Alde Zahar osoan barrena ibiliko dira: Urdanibia plazatik, San Martzial karrikatik, San Juan plazatik, udaletxearen ondotik, San Juan Harria zutabe historikotik eta, azkenik, harzola osoa igo eta gero, Karrika Nagusitik pasatuko da tropela. Han, Elizatxo hiribidea hartuko du, eta, azkenean, hiritik aterako da, Arretxe gainetik. "Trazatzen genuen ibilbideak gure ondare historiko kulturalaren barruko ahalik eta mugarri bereizgarri gehien bil zitzan saiatu gara", erantsi du Kirol ordezkariak.

Itzulia girotzeko lehiaketak

Itzulia Irundik abiatu aurreko egunetan hiria girotzeko Irungo Udalak sare sozialen bitartez egingo den lehiaketa proposatu du. Saria Itzuliaren irteera Ficobatik zuzenean jarraitzeko aukera eskainiko duten bi sarrera izango dira. Zozketan parte hartzeko ibilbideko puntuaren batean edo Itzuliko banderatxoekin argazki bat atera, #IrunBueltanDa traolarekin partekatu Twitter edo Instagramen eta @Irun_informa kontua publikazioan aipatu beharko da. Argazkiak urriaren 13tik 17ra partekatu beharko dira eta irabazleak urriaren 19an goizean jakinaraziko dira.

Era berean, Irungo 10 merkatari eta ostalarik osatutako taldea Itzualiaren inguruko beste lehiaketa bat antolatzen ari dira. Lehiaketa honek berriz, bi sari mota izango ditu. Batetik, dendari edo ostalari bakoitzak haien negozioekin loturik zozketara egindako ekarpena eta, bestetik, lehiaketako sari orokorra izango dena, Ciclos Artiaren bizikleta bat. Bigarren lehiaketa honetan parte hartzeko jarraibideak Papperino, Marrubi, El Muro, Ekialde, El Chico de los cartuchos, De Perita Fruta-denda, 22Academy, A pedir de boca eta Overflod-ek Instagramen dauzkaten kontuetan ikusgai egongo dira.

Proba zifretan

Espainiako Itzuliaren hasiera dela eta, Irunera 2.500 pertsona inguru iritsiko direla aurreikusten da. Zehazki, 176 kirolarik parte hartuko dute kirol proba honetan, 8 txirrindulariz osatutako 22 talde. Zifra horri Itzuliko lan-taldea eta ekipo ezberdinak osatzen dituzten 500 profesionalak batu behar zaizkio. Gainera, jada nazioarte mailako 1.000 kazetarik baino gehiagok probaren estaldura egiteko akreditazioa eskatu dute.

2020ko Itzuliak 2.881 kilometro izango ditu guztira eta bi herrialdeetatik igaroko dira kirolariak, Espainia eta Frantzia. Osasun krisialdia iritsi aurretik Itzuliaren edizio internazionalena antolatzea pentsatzen zen, proba Holanda eta Portugaleraino zabalduz, baina, azkenean ezinezkoa izan da helburu hori errealitate bihurtzea. Bestalde, Covid-19a dela eta, osasun arloko 20 profesionalek, 5 anbulantziak eta 4 mediku kotxek Itzulia gertutik jarraituko dute ibilbide osoan zehar.

Ficoba abiapuntu

Irungo erakustazoka Irteerako bulego iraunkorra eta probaren antolakuntzarako beharrezkoa den azpiegitura logistikoa kokatzeko hautatu da. Hortaz gain, taldeen auto eta autobusak bertan elkartuko dira. Gainera, ibilbide neutralizatuaren hasiera Ficobatik egingo denez, bertan kokatuko da sinaduren kontrola. Taldeak urriaren 17tik aurrera iritsiko dira Ficobako instalakuntzetara eta lasterketaren hasiera iritsi arte, Itzuliaren inguruan antolatutako ekintza eta bilera ugari izango dituzte. Era berean, urriaren 18tik aurrera "lasterketako burbuila" osatuko duten kirolari eta profesional guztiei PCR probak egingo zaizkie.

Trafikoan aldaketak

Hirian zehar egingo den ibilbidearen ondorioz, eguerdiko 12:05etatik 13:30etara hiritik barrena mugitzea saihestea eskatzen da, nahiz eta itxitako kaleak lasterketa igaro ahala irekiko diren. Aparkalekuei dagokienez, Santiago auzoko zenbait kaleetan aparkalekuak kendu eta Stadium Galeko inguruak 5. guneko TAO txartela duten ibilgailuentzat egokituko dira urriaren 18ko goizeko 9:00etatik urriaren 20ko arratsaldeko 15:00ak arte. Hortaz gain, urriaren 20ean Itzulia irten bitartean ezinbestekoak diren hiriko sarrera eta irteerak Behobiatik egitea aholkatzen da. Era berean, udaletik hiriko eta hiriarteko autobusen zerbitzuan aldaketak izango direla aurreikusten da. Trafiko mozketekin lotutako informazio gaurkotu guztia udal webgunearen bitartez kontsultatu ahalko da probaren hasieraren aurreko egunetan.

Bidasoatik minbiziari aurre egiteko borrokan

Minbiziaren Aurkako Elkarteak Bidasoan duen egoitzan pandemiaren ostean etendako zerbitzu eta jarduerak berreskuratzeko lanean ari dira elkarteko boluntarioak. Segurtasun neurri guztiak errespetatuz eta errealitate berri honetara lehenbailehen egokitzeaz gainera, Irungo Foru kaleko 4. zenbakian kokatutako egoitzatik hiritarrentzat interesekoak izan daitezkeen jarduera berriak proposatzeko tartea aurkitu dute joan den urtean egoitzaren 10. urteurrena ospatu ostean.

Bidasoako Minbiziaren Aurkako elkartearen nobedade nagusietako bat Ibilaldi Osasungarriak izeneko ekimena da. Bizitza osasuntsua sustatu eta sedentarismoa saihesteko helburuz, asteartero Irungo egoitzaren aurrean gehienez 10 pertsonek osatutako taldeak biltzen dira hirian zehar 5 kilometroko luzera duten ibilaldiak egiteko. Izan ere, Munduko Osasun Erakundeak argitaratutako ikerketa batek erakusten duenez, munduko biztanleriaren laurden bat, hau da, 1.400 milioi pertsona, gaixotasun kardiobaskularrak, II motako diabetesa edo minbizia pairatzeko arriskua dute haien bizi-estilo sedentarioak direla eta.

Konfinamenduan zehar eta ostean, portaera sedentarioak areagotu dira. Prebentzio arduradunak adierazi duenez, "konfinamenduan bi hilabete osoz geldirik egon gara eta sedentarismoarekin autsi eta berriro aktibatzeko modua topatu dugu". Elkartetik antolatutako ibilaldiak hirian barrena izan ohi dira, sarbide errazekoak eta oztopo arkitektonikorik gabeak. "Ibilaldi Osasuntsuek oso harrera ona izan dute, astetik astera jende gehiago hurbiltzen da". Horretarako, asteartero goizeko 10:00etan elkartearen egoitzaren aurrean elkartzen dira eta, eskaera handiaren ondorioz, talde bakarra izatetik, urritik aurrera ibilaldietarako bi talde antolatzen hasi dira.

Bien bitartean, Bidasoako Minbiziaren Aurkako Elkartean aurretik eskaintzen ziren zerbitzuak berreskuratu dira, esaterako, erretzeari uzteko laguntza kanpaina. Terapia aurrez aurre edo online egiteko aukera eskaintzen da. Lanketa bakarka edo taldeka egiteko aukeraz gainera, zerbitzua enpresetara zabaltzeko apustua egin da. Amaia Izetak azaldu bezala, "Beasaingo Indar enpresako langileekin terapia hasi berri dugu, aurretik sentsibilizazio kanpaina burutu ostean".

Urriak 19, Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Eguna

Amaia Izeta elkarteko prebentzio arduradunak azaldu duenez, Minbiziaren Aurkako Elkartearen Bidasoako Egoitzatik, "Bidasoa eskubaloi taldearekin lankidetzan, kontzientziaziorako zenbait jarduera antolatuko dira urriaren 19ra arte". Horrela, urriaren 9an Bidasoa klubeko bazkideen arten Minbiziaren Aurkako elkarteko bazkide egingo diren 50 pertsona lortzeko erronka hasi zuten.

Urriaren 16an, Zabaltza plazan elkartearen Bidasoako delegazioko boluntarioek maskarak, eskumuturrekoak eta zapi arrosak (Bidasoa klubak emandakoak) saltzeko eta elkarteko zerbitzuen berri emateko postua ipiniko dute. Hurrengo egunean, urriaren 17an, Bidasoak Bartzelonaren kontra Artalekun jokatuko duen partiduan ohorezko sakea Minbiziaren Aurkako elkarteko kide den Nora onkologiako pazienteak egingo du.

Azkenik, urriaren 19an, Bularreko Minbiziaren Aurkako Nazioarteko Egunean bertan, Irungo egoitzan Josune Ramiro drainatze linfatikoko tailerra eskainiko du arratsaldeko 17:30etatik 19:00etara. Tailerrean nork bere hesgailua aldatzu eta drainatzea egiteko jarraibideak emango dira. Antolakuntzak jakinarazi duenez tailerra edukiera murriztuarekin egingo da.

Gaixotasuna zifretan

2019. urtean zehar Irungo egoitzan 164 pertsonei zerbitzua eskaini zien elkarteak, zehazki, 81 paziente eta 83 senideei. Guztira 586 saio psikologiko eskaini eta ongizate arloko 368 esku-hartze egin ziren. Prebalentzia datuei dagokienez, 1.222 kasu zenbatu ziren Irunen 2019. urtean, hau da, biztanleriaren %1,81a.

Etengabeko zerbitzua

Covid-19ak eragindako pandemiak ezustean harrapatu zituen Bidasoako Minbiziaren Aurkako Elkarteko langile zein boluntarioak. Hala ere, zerbitzua era telematikoan eskaintzen jarraitzeko modua topatu zuten. "Koronabirusaz gain, minbiziak gure artean jarraitzen du eta aurre egin behar zaio", Amaia Izetak azaldu duenez. Hortaz, elkarteko kideek arreta psikologikoko zerbitzuak, laguntzen kudeaketarako aholkularitza edo material ortopedikoaren mailegua erabiltzen jarraitzeko aukera izan zuten. "Normalean ospitaletik eskaintzen diren zerbitzu asko bertan behera gelditu ziren, beraz, gure jarduerarekin jarraitzea ezinbestekoa izan zen", gaineratu du prebentzio arduradunak.

Uztailean Bidasoan Minbiziaren Aurkako Aste berezia prestatu zuen elkartearen Bidasoako ordezkaritzak eta, hainbat jardueren artean, bazkide berriak lortzen ahalegin berezia egin zen. Amaia Izetak adierazi duenez, "elkartearen helburuetako bat gaixotasunaren inguruko ikerketa sustatzea da eta, bazkide berriei esker, gaixotasunaren ikerketa sustatzeko ekintzak aurrera eraman ditzakegu".

Egun elkarteak aurrez aurreko zerbitzu gehienak berreskuratu dituen arren, zenbait kasuetan arreta bideo-deien bitartez eskaintzen da. Amaia Izetak azaldu duenez, "paziente asko arrisku handiko taldekoak direnez, zerbitzuak era telematikoan eskaintzen jarraitzea ezinbestekoa da". Gainera, konfinamenduan eta pandemiaren hilabete gogorrenetan zehar Covid-19 pairatu zuten familiei guztiz doakoa izan zen lagun- tza-plan berezia eskaini zitzaien, hau da, dolu zerbitzua, aholkularitza juridikoa, laguntza sozial, boluntariotza edo material ortopedikoaren mailegua eskainiz, hau da, minbiziaren presentzi arintzen laguntzen duten keinuak.

Labore Txingudik helburu berriak finkatu ditu dendaren irekieraren lehen urteurrena igaro ostean

Urriaren 12an urte bat bete da irabazi asmorik gabeko Labore Txingudi elkarteak Irungo Uranzu kaleko 13. zenbakian denda ireki zuenetik. 200 bazkide lortzeko hasierako helburua bete ostean, elkarteak dendaren irekiera ordutegia luzatzeaz gainera, diru-bilketa kanpaina abiatu du. Dornaku Lantz Labore Txingudi elkarteko kideak dendaren helburu berrien inguruan mintzatu da.

Nolakoa izan da dendaren irekieraren osteko lehen urtea?
Egia esan pozik gaude, gustura pasa da lehen urte hau, nahiz eta tartean Koronabirusaren kontu guztia iritsi. Urriaren 12an dendaren irekieraren urteurrena bete zen. Hasiera batean 200 bazkide lortzeko helburua jarri genion geure buruari eta 209 bazkide gara dagoeneko. Inguruko jende asko hurbildu da dendara, baita auzokideak ere, beraz, erantzuna ona izan dela uste dugu eta pozik gaude lortutako emaitzekin.

> **“Hasiera batean 200 bazkide lortzeko helburua jarri genion geure buruari eta 209 bazkide gara dagoeneko”**

Pozgarria izango da hasieran markatutako helburuak lortu dituzuela ikustea, ezta?
Bai, gauzak oso erritmo onean joan dira, alegia, espero genuen bezala. Ezusteko bakarra Covid-19a izan da, baina, lan asko egiteko aukera eman digunez ezustekoak ondorio positiboak ekarri dizkigu.

Nolakoa da dendara hurbiltzen den bezeroaren profila?
Bazkide formatua dugu, beraz, bazkide zenbatekoa handitu dela baieztatu dezakegu. Hortaz gain, inguruko eta auzoko jendeak denda arrunt modura erabiltzen du gure saltokia, hortaz, jende askok denda erabiltzeko hautua egin duela esan dezakegu. Dendara kalitatezko produktuen bila etortzen diren etxeko-andre asko dauzkagu gure bezeroen artean.

Dendaren irekiera ordutegia zabaltzea erabaki duzue, zergatik?
Lehen urtea izanik gauzak pausoz pauso egin nahi genituen, lehenengo oinarri sendo bat genuela bermatzeko. Hasieran goizez irekitzea erabaki genuen bakarrik, baina, dendaren bigarren urtea hasteko arratsaldez ere irekitzea erabaki dugu. Hortaz, ordutegi komertziala arrunta dugu urriaren 13tik aurrera.

Ordutegi zabalak bezero berriengana iristeko aukera emango dizuela espero duzue?
Bai, bakoitzaren lan-ordutegiekin uztartzea errazagoa izango dela uste dugu. Jende asko denda ezagutzeko asmoarekin etorri da, baina, ordutegia dela eta ezinezkoa izan zaie benetan egunerokotasunean erabiltzea.

Bigarren nobedadea, diru bilketa. Zein asmoarekin abiatu duzue crowfounding-a?
Orain arte beharren araberako inbertsioak egiten joan gara. Bertako barazkiak kontsumitzeko kamara-frigorifikoak izatea ezinbestekoa dela ikusi dugu, kalitatea eta kantitateak mantentzeko. Izan ere, banaketari dagokionez ez da erraza egunero barazkiak ekartzea. Bestetik, granela oihartzun handiko gaia da azkenaldian ahalik eta plastiko gutxien erabiltzeko tendentziaren barruan. Granel ontziek leku gutxiagoan gauza gehiago eskaintzeko aukera emango ligukete, baina, errealitatea granel ontziak nahiko garestiak direla da. Elkarte bat garenez, gauzak beti elkar laguntzari esker sortu dira eta, laguntza deialdia bazkideez gainera, gizartera oro har zabaltzeko modu egokiena zela iruditu zitzaigun.

Diru-bilketa Itsulapiko plataformaren bitartez abiatu duzue. Zergatik plataforma hau?
Itsulapiko saltsan ibiliz ezagutu dugu. Plataforma egokiena zela iruditzen zitzaigun, euskarazko azpiegitura eskaintzeaz gainera, informazioa gazteleraz eta frantsesez ipintzeko aukera ematen zigulako eta gure egoera linguistikoa dela eta egoki ikusi genuen. Momentuz oso pozik gaude hartutako erabakiarekin.

> **“Labore sustatzea bertako ekoizleak, bertako kontsumoa eta kontsumo arduratsua sustatzeko modua dela ulertzen dugu”**

Zein diru kantitate bildu nahiko zenukete?
Minimoa 4.000 eurotan jarri dugu kamara-frigorifikoak erosi ahal izateko. Batez ere, Hondarribiko nekazariekin lan egiten dugu eta nekazaritza arlo horri lehentasuna eman nahiko genioke. Aukera balego, 8.000 euro bilduko bagenitu, granel ontziak erosiko genituzke. Bi zifra horien artean ibiltzea lortuko bagenu oso pozik egongo ginateke.

Ekarpenak egin ahal izateko epemuga zehatzik ipini duzue?
Plataforma berak kanpainaren hasieratik amaierara 40 eguneko epea uzten du. Bilketa urriaren 5ean hasi genuen, baina, gauzak mugitzen ari direla ikusten badugu, kanpaina luzatzen ahaleginduko ginateke. Helburua, 40 horiei eustea da eta, horren ostean, ahalik eta gehien zabaltzen saiatzea.

Jasotako ekarpenak eskertzeko modua topatu duzue ere?
Bai, ekarpenak egiten dituztenek dendan bertan Labore Txingudiko poltsak jasotzeko aukera eskaini nahi izan dugu. Jutezko oso poltsa erosoak dira, besotik zintzilik eramatekoak. Sari sinbolikoa da eta, horrekin batera, dendara hurbiltzeko gonbidapena luzatu nahi izan dugu.

Ekintza horien bitartez kontsumo arduratsuaren aldeko jarrera sustatu nahi duzue?
Bai, ulertarazi nahi dugu gurea erabileran denda arrunt bat dela, baina, irabazi asmorik gabeko elkarte bat garen aldetik, gure helburua argoekologia eta bertako kontsumoa sustatzea da. Hortaz, Labore sustatzea bertako ekoizleak, bertako kontsumoa eta kontsumo arduratsua sustatzeko modua dela ulertzen dugu.

Luis Antonio Sánchez, Irungo txirrindulari elkarteko presidentea:

“Txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatu eta jendea gure klubera erakartzeko une aproposa dela uste dugu”

2020ko denboraldiko taldearen aurkezpena martxoko lehen egunetan.

Urriaren 20an Espainiako Itzuliaren abiapuntu izango da Irun. Hiria txirrindularitzaren munduarekin lotutako ekitaldi garrantzitsuenetako baten lekuko izango zela ezagutu bezain laster Irungo txirrindulari kluba hainbat ekitaldi antolatzeko lanean hasi zen. Pandemiaren ondorioz ekitaldi gehienak bertan behera gelditu diren arren, Luis Antonio Sánchez Irungo Txirrindulari elkarteko presidentea klubeko “normaltasun berriaz” mintzatu da.

Hiriko txirrindulari elkartearentzat pozgarria da Irun Itzuliaren abiapuntu izatea?
Bai, noski, Irun Espainiako Itzuliaren abiapuntu izango zela ezagutu genuenean asko poztu ginen. Maiatzeko hilabetearen inguruan hirian egingo ziren ekitaldiak antolatzen hasi ginen, baina, tamalez, osasun krisialdiaren ondorioz Itzuliaren inguruan antolatu nahi ziren ekitaldi osagarriak bertan behera gelditu dira. Hiriko biztanleak kirol ekitaldi garrantzitsu honen partaide egitea bilatzen zen, baina, tamalez, ezingo da hala izan.

Zein motatako ekitaldiak antolatzea aurreikusten zen?
Hiri osoaren inplikazioa bilatzen zen, hau da, etxeko txikientzako tailer eta familientzako ekintzak. Bestetik, kirol jarduerei dagokionez, Itzulia abiatu aurreko egunetan proba zikloturista bat antolatzeko asmoa genuen Irungo Txirrindulari elkartean.

Ekitaldiak bertan behera gelditu aurretik, Itzuliaren hasiera antolatzeko lantaldearekin biltzeko aukera izan zenuten?
Bai, alkatearen gonbidapena jaso genuen hasierako antolakuntza bileretan parte hartzeko. Egoeraren bilakaera ikusita, antolakuntza lan horiek eten eta ekitaldi gehienak bertan behera uztea erabaki zen, azken momentura arte Itzuliaren irteera bera zalantzan egon dela ikusita.

Itzuliaren irteeraren murriztapenak ikusita, nolako giroa dago klubeko kideen artean?
Jendeak ilusio handiz espero zuen data zen eta, nahiz eta nahi genuen guztia antolatzeko aukerarik ez izan, klubeko bazkideak Itzuliaren irteera antolatzen laguntzeko haien burua eskaintzen ari dira. Badira oraindik beste ekitaldirik antolatzea lortu ote den galdezka dabiltzanak, baina, klubetik probaren antolakuntzatik zabaldutako neurri eta murriztapen guztiak betetzeko mezua zabaltzeko ahalegina egiten ari gara.

Goi-mailako kirolariak Irungo erdiguneko kaleetan ikustea berezia izango da?
Bai, izan ere, probaren irteera eta iritsiera antolatzen duten hiriek, hirian barrena egingo den ibilbidea diseinatzeko pribilegioa dute. Bestela, ezinezkoa litzateke pelotoia Irun erdiguneko kale guzti horietan barrena ikustea. Adibidez, txirrindulariak kale nagusian gora ikustea berezia izango dela uste dut.

Itzulia hiritik abiatzea Irunen txirrindularitzarekiko zaletasun berpiztea eragingo du?
Pandemiaren ostean, batez ere hiriko gazteak, garraio publikoaren erabilera saihestuz, udaran zehar hondartzara joateko edo hiritik mugitzeko bizikleta asko erabiltzen hasi direla ikusi dugu. Hortaz, txirrindularitzarekiko zaletasuna sustatu eta jendea gure klubera erakartzeko une aproposa dela uste dugu. Udazkenean bizikletaren munduarekiko interesa duten horiek klubera hurbildu daitezen hainbat ekintza antolatzea pentsatu dugu.

Klubean pandemia iritsi aurreko lan-erritmoa berreskuratu duzue?
Denboraldia oso arraroa izaten ari da. Txapelketa guztiak pandemiaren une latzenetan bertan behera gelditu ziren eta udazkenera atzeratu ziren. Hortaz, aurreko denboraldia amaitu gabe dugu denboraldi berria prestatzen ari beharko ginatekeen bitartean. Denboraldien egutegiak elkarren segidan doazenez, txirrindulariek ia ez dute atseden hartzeko astirik izango. Adibidez, kadete junior eta sub-23 kategoriako kirolariek urriaren amaierara arte txapelketen jarraituko dute. Normalean, urriaren amaiera hurrengo urteko aurre-denboraldiarekin hasi ohi gara. Dena den, kimu eta haurren taldeak osatu ditugu, jende berria sartu da eta urriaren 22an entrenamendu ofizialak hasiko ditugu.

Momentuko egoera dela eta, kirola bakarka praktikatzeko aukera emateagatik txirrindularitza kirolarien zaletasuna irabazten ari da?
Bai, hori egia da. Horregatik, klubetik “challenge” moduko bat antolatzeko asmoa dugu, jendea bere kontu bizikletaz ibiltzera atera dadila animatzeko. Jolas antzeko zerbait izango litzateke eta parte-hartzaileak bi maila ezberdinetan bereiziko lirateke egindako kilometroen arabera. Aplikazioak bizikletarekin egindako irtenaldi bakoitzeko puntuak gehitzen joango da eta urtearen amaieran lortutako puntuek irtenaldi gehien egin dituzten kirolariak zeintzuk izan diren erakutsiko lukete. Oso ekimen interesgarri eta erakargarria izan daitekeela uste dugu.

Kirolariez gainera, klubeko zuzendaritzarentzat denboraldi konplikatua izaten ari da?
Bai, izan ere, egun batetik bestera gauzak aldatu daitezkeela kontutan izan behar dugu, beraz, edozein albiste edo aldaketa egokitzeko gaitasuna eduki behar dugu. Esaterako, klubean Juanma Garate martxa zikloturista ohi bezala ekainean antolatzeko asmoa genuen eta probaren data udazkenera atzeratu ostean, azkenean ezinezkoa izango zaigu aurtengo edizioa burutzea.

Irunen bizikletaren erabilera sustatzeko pausuak ematen ari direla uste duzu?
Bai, gehigarri bat izan daiteke. Bizikleta, garraiobide mota bat izateaz gainera, zaletasunean bihurtu daiteke eta horretarako lan egin behar dugu. Gazteen heziketan zein helduen aisialdian bizikleta era aproposean eta horretarako egokitutako espazioetan erabiltzea sustatu behar dugu. Klubetik zaletasuna indartzeko ekintzak eta jarduerak antolatzea ezinbestekoa da, gaurko ekintzak etorkizunean irudikatuko baitira.

Iñigo Camarero, Txingudi Errugbi klubeko lehendakariordea:

"Jokalariek martxoan utzi zuten txapelketa eta lehiara itzultzeko gogo asko dauzkate"

Txingudi Errugbi Kluba ezjakintasunez betetako denboraldi ezohiko bati hasiera eman ahal izateko lanean hasi da. Klubeko lehen taldeak Euskal Ligako Lehenengo Mailan emaitza hobeak lortzeko helburuari eutsiko dio denboraldi berrian. Bien bitartean Iñigo Camarerok, orain arte klubeko lehendakariorde eta jokalari izandakoa, entrenatzaile lanetan estreinatuko da aurten.

Zein egoeratan dago Txingudi Errugbi kluba Covid-19aren ondorioz?
Abuztuan klubeko lehen taldearekin aurre-denboraldia prestatzen hasi ginen, txapelketekin noiz hasiko ginen jakin gabe. Gainontzeko kategoriekin, berriz, urriko bigarren astean hasi genituen entrenamenduak. Jakin berri dugu hurrengo hilabeterako txapelketekin hasteko baimena lortu dela, baina, oraindik ez dugu ez egutegirik ez ezer.

Ezjakintasunen artean denboraldia planifikatzea zaila da?
Bai, oso zaila. Hasierako entrenamenduak bakarka fisikoa lantzen hasteko prestatu genituen. Pixkanaka lanean jarraitu dugu, partiduekin hasteko data eskuratu dugun arte, baina, bidean inprobisatzen.

Aurreko urtean bezala, aurten ere Euskal Ligako Lehenengo Mailan ibiliko zarete?
Lehengo urtean Euskal Ligako Lehenengo Mailara igo ginen. Lehenengo partiduak sufritu genituen arren, azken partiduetan emaitza onak lortu genituen, Covid-19aren ondorioz denboraldia bukatzea ezinezkoa izan baitzen. Aurten berriro Euskal Ligako Lehenengo Mailan jokatuko dugu eta helburua sailkapeneko erdialdeko postuetatik gora ibiltzea izango da.

Euskal Liga berezia da, izan ere, Iparralde zein Nafarroako taldeekin jokatzen duzuelako, ezta?
Bai, hala da. Euskal Federazioa hurbilekoak diren inguruko beste taldeak onartzeko prest egon da beti. Sarako taldeak Euskal Ligan jokatzeko eskaera egin zuen, hemengo jokatzeko moduarekin antzekotasun gehiago zeuzkatela ikusi ostean. Hortaz gain, Nafarroa zein Errioxako taldeak dauzkagu.

Hendaiako taldeak, ordea, ez du Euskal Ligara sartzeko eskaera egiteko asmorik?
Ez, guk dakigula ez. Egia esan, Hendaiako taldearekin ez dugu inolako erlaziorik, ez ona ez txarra.

Denboraldi berrirako aurpegi berriak dauzkazue jokalarien artean?
Bai, urtero bezala taldean mugimendua egon da. Jokalari batzuek errugbia utzi dute. Aurreko denboraldian Argentinako bi jokalari izan genituen eta aurten agian Argentinako bi lagun gehiago batu zaizkigu taldera. Batez ere, aipagarria da Sub18 taldetik 5 jokalari igo direla eta haien laguntza oso garrantzitsua izango da.

"Helburua sailkapeneko erdialdeko postuetatik gora ibiltzea izango da"

Nola ikusten duzu taldea aurtengo ligarako?
Printzipioz taldea ondo ikusten dut, gogo askorekin. Jokalariek martxoan utzi zuten txapelketa eta lehiara itzultzeko gogo asko dauzkate.

Orain arte taldeko jokalaria izan zara. Aurten ere jokatzen jarraitzeko asmoa duzu?
Aurtengo entrenatzaileak talde utzi ostean, niri proposatu zidaten taldea hartu eta entrenatzailea izateko ardura. Nire bizitza osoan zehar errepikatu dut entrenatzailea ezin daitekeela jokalaria izan, beraz, nire hitza hartu eta aurten entrenatzaile lanak egingo ditut soilik.

Harrobiari dagokionez, zenbat talde dauzkazue klubean?
Aurreko urteetan bezala kategoria guztietan taldeak izan nahiko genituzke, hau da, sub10, sub12, sub16, sub18 eta seniorra. Neskak urtero bezala gutxi dauzkagu eta beste taldeekin batera jolasten dute. Oraingoz ez dakigu pandemiak taldeen osaketan eraginik izango ote duen.

Denboraldiko nobedade nagusia Kale Nagusia tabernaren inaugurazioa da. Nola sortu zen ideia hori?
Kirolaz aparte, talde sozial bat gara. Aspalditik horrelako zerbait irekitzea pentsatuta geneukan. Lokala eskaini ziguten eta pausua ematea erabaki genuen.

Aurten berriro errugbi-eskola martxan jartzeko pausua ematea erabaki duzue?
Bai. Umeekin lan egiten hasi gara, tartean aldagelak erabiltzeko debekua eta beste zenbait oztopo aurkitu arren.

Errugbira jokatzea eta lokatzez ez zikintzea konplikatua da. Nola konponduko zarete?
Zalantzarik gabe, denboraldi honetako beste erronketako bat jendea zailtasun horiengatik errugbia uztea saihestea izango da. Orain arte ondo moldatu gara, nahiz eta aurrerantzean euria, hotza eta dutxarik gabe etxerako itzulerak deserosoagoak izango direla dakigun.

Lehendakari gisa, Plaiaundiko instalakuntzak hobetzeko konponbiderik ikusten duzu?
Plaiaundiko instalakuntzen lekualdaketa beti buruan daukagu, dena dela, azken hilabeteetan gai horretan udalaren partetik ez dugu ikusi inolako mugimendurik gertatu denik. Azken berriak orain dela urte eta erdikoak dira. Pandemia tartean egon arren, ez dut uste lekualdaketaren prozesua guztiz eteteko eragina izan beharko lukeenik, hortaz, ez dakigu lanak hasi ahal izateko tramiteetan aurrerapausorik eman ote den.

ESTUDIO FOTOGRAFICO
GO VER™

Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2°
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Adil El Bardouni, Luna ile-apaindegiko jabea:

“Ondo lan eginez gero, jendeak zure lanaz hobeto hitz egingo du”

Adil El Bardouni 2013. urtean iritsi zen Irunera eta bertan topatu zuen ile-apaindegi propioa irekitzeko aukera. “Luna” izeneko ile-apaindegia Pio XII. auzoko Sebastian Errazu kalean kokatuta dago. Zortzi urteren ostean, bezeroak etengabe sartu eta ateratzen dira lokaleko atetik. Adilek ile-apaindegian eskainitako zerbitzuak eta negozioarekin lotutako zenbait bitxikeria azaldu ditu.

Nola hasi zinen ile-apainketaren sektorean lan egiten?
Ni Tindufen jaio nintzen arren, Tetuanera bizitzera joan ginen. Tetuanen ile-apainketarekin lotutako erdi-mailako gradua eta praktikak egin nituen. Orduan nire aitarekin Espainiara etortzeko aukera topatu genuen eta 2009an Iruñera iritsi ginen. Fabrika batean lanean hasi nintzen ile-apaindegi batean lan egiteko aukera topatu nuen arte. Irun hiriaz hitz egitea entzun eta, Donostiatik pasa ostean, azkenean, Irunera iritsi nintzen. Bertan topatu nuen nire negozio propioa irekitzeko aukera.

Ile-apaindegia ireki zenuenetik, negozioa asko hazi da?
Bai, noski. Pixkanaka hasi ginenen eta, denborak aurrera egin ahala, bezero berriak ezagutzen eta erakartzen joan gara. Era askotako bezeroak dauzkagu, gazteak zein helduak, denetarik.

Erraza izan zen Luna ile-apaindegiaren izena Irunen ezagutaraztea?
Ez zen lan erraza izan, hain zuzen ere, Irunen ile-apaindegi asko daudelako. Hasieran guregana hurbildu eta konfiantza erakutsi ziguten bezeroei ahalik eta arreta onena eskaintzen ahalegindu ginen, ondoren, haien ezagunei gure negozioaren inguruan ondo hitz egin ziezaieten.

Zeintzuk dira ile-apaindegian eskaintzen dituzuen zerbitzuak?
Ilea mozteaz gainera, bizarra konpondu, ilea tindatu eta orrazkera ezberdinak egiten ditugu. Hortaz gain, ilearen zainketarekin lotutako produktuak saltzen ditugu. Hau da, ile-apaindegi batean ohikoak diren zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu. Orokorrean, bezeroen eskakizun guztiak entzun eta zerbitzua emateko prest gaude.

“Bezero batzuek zerbitzuaren kalitateari garrantzia ematen diote, besteek prezioa begiratzen duten bitartean”

8 urteren ostean, bitxikeria eta anekdota ugari izango dituzu, ezta?
Bai, behin, adibidez, Ameriketatik etorritako turista bat gure ile-apaindegiraino etorri zen ilea mozteko. Inguruko ile-apaindegia onenen inguruko iruzkinak bilatu zituen Google-n eta horrela izan zuen Luna ile-apaindegiaren berri. Gizonak ez zekien gazteleraz hitz egiten eta nik ingelesez ere ez, baina, elkar ulertzeko ondo moldatu ginen eta pozik gelditu zen zerbitzuaren emaitzarekin.

Zeintzuk dira zuen bezero ohikoenak?
Adin desberdineko mutil zein gizonak. Hilabete bateko umeetatik hasita, adineko gizonetara.

Zeri ematen diote bezeroek garrantzi gehien?
Denetarik dago. Guk zerbitzu ona eskaintzen dugu prezio onean. Bezero batzuek zerbitzuaren kalitateari garrantzia ematen diote, besteek prezioa begiratzen duten bitartean.

Lanaren emaitza zuen publizitate onena da, ezta?
Bai, horrela da. Azken finean, jendeak inguruko ezagun eta senideei gomendioak egiten dizkie, eta Luna ile-apaindegiaz ondo hitz egiteak gure negozioa hazten jarraitzeko aukera ematen digu. Ondo lan eginez gero, jendeak zure lanaz hobeto hitz egingo du.

Hirian bezero finkoak dauzkazu?
Bai, nire bezeroen %80 edo %90a bezero finkoak direla esango nuke, beraz, 8 urte inguru daramatzate nirekin. Batez ere, gazteak dira nire bezero finkoen zati handiena, 25 urte inguruko gazteak.

Auzo edo hiriko bezeroak hurbiltzen zaizkizu soilik?
Hiri osoko bezeroak izateaz gainera, Lapurditik jende asko etortzen zaigu. Hortaz gian, Hondarribi, Donostia zein Gipuzkoa osotik jendea Iruneraino etortzen da gurekin ilea edo bizarra mozteko. Adibidez, Iruñeko bezero berezi bat dugu, familia Irunen duela aprobetxatuta, ilea beti gurekin mozten duena.

Erraza da bezero bakoitzaren estiloa topatzea eta bilatzen duen emaitza lortzea?
Bai, izan ere, sektorean urte luzez lan egin ostean azkenean bezeroak ondo ezagutzen dituzu. Adibidez, bezeroaren jatorri edo adinaren arabera eskariak asko aldatzen dira. Hala ere, bezero guztiak ondo ezagutuz erraza da haien eskarietara egokitzea.

Zergatik gomendatuko zenieke bezero berri posibleei Luna ile-apaindegira hurbiltzea?
Orain arte konfiantza erakutsi diguten bezero guztiei eskerrak eman nahiko nizkie. Oso pozik nago nire bezeroekin eta haiek guregandik jasotako arretarekin gauza bera gertatzea espero dut. Egunero eskaintzen ditugun zerbitzuak hobetzen ahalegintzen gara. Bezero dezente dauzkagu, baina gure ile-apaindegiko atea beti bezero berriei harrera egiteko zabalik egongo da.

Toki Alai LH4

Denbora-pasak

7 izen

X	R	D	T	V	V	C	I	F	W	Z	W	V	M
G	R	A	G	H	I	E	M	N	T	D	O	R	K
U	A	X	R	E	T	M	A	N	E	X	D	K	O
D	N	K	Z	W	A	H	T	G	H	O	D	E	I
F	E	X	D	I	A	J	N	G	J	D	U	W	O
B	F	N	G	X	J	Z	P	D	A	V	R	C	K
Q	E	K	P	U	E	Q	L	U	V	A	M	H	H
K	R	P	V	R	M	I	W	O	E	O	M	L	A
E	M	D	R	V	Z	D	H	L	G	X	R	A	D
Q	I	I	U	W	T	X	K	E	N	V	X	M	I
T	N	R	U	Z	T	I	H	I	K	A	W	A	J
A	D	A	S	G	H	A	I	Z	C	H	P	I	A
M	H	T	D	H	T	U	Y	V	G	O	I	A	X
G	N	I	U	K	X	V	H	B	W	X	Z	R	V

Fermin, Amaia, Khadija, Ekhi, Manex, Irati, Hodei

	7			9	1		2	
3	5							4
	9	6		3	2	7		
	2		3	4				
					8	5		
			2			6	4	
	6	9					5	8
							6	7
	4		8	6			9	

Euskara Irunen barrena

Santuen eguneko biyamonian

Gure amak esaten-tzuen:
«Santuen eguneko biyamonian anima gaxuak daudezte deskantso aundiyan. Guk errezatu dezagun aientzat lanian jarri ditzagun betiko zorionian».

Irungo S.R.A andereari jasoa (1959-XI-1).
(El Bidasoa, 1960-I-16)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

Hirubide DBH3

EUSKO LEGEBILTZARRA

Azaroaren 27an, Hirubideko 3.C-ko eta 3.B-ko ikasle batzuk Gasteizko Legebiltzarrera joan ginen. Hirubiden goizeko 9etan autobusa hartu genuen eta Gasteizera bidean joan ginen ikasleak. 11etan, gutxi gorabehera, iritsi ginen Gasteizera eta han Legebiltzarra bisitatu genuen.

Lehenik eta behin, langile batek sesio gelara eraman gintuen eta azalpen bat eman zigun gela horri buruz: zer egiten den bertan, zertarako balio duen, nortzuk egoten diren bertan...

Ondoren, Legebiltzarkideekin elkartu ginen eta taldeka jarri ginen galdera batzuk erantzuteko. Galderak erantzun baino lehen, Legebiltzarkide batzuek haien esperientziak kontatu zizkiguten, mezu bat bidaltzeko asmoz. Kontatu ziguten ez dela oso ohikoa neskek mutilen ogibideetan lan egitea, baina ez dugula etsi behar gure ametsak lortu arte.

Galdera horiek erantzun eta gero, denen artean komentatu genituen eta hamaiketako txiki bat eskaini ziguten. Hori bukatzerakoan, bakoitzak bere iritzia idatzi zuen paper txiki batean eta zuhaitz batean zintzilikatu genituen paperak.

Azkenik, argazki bat atera genuen guztiok batera Legebiltzarkideekin eta handik ateratzerakoan, motxila eta poltsa bat oparitu zizkiguten bakoitzari. Autobuserako bidean, bazkaldu egin genuen eta Hirubidera bueltatu ginen arratsaldeko 16:00etarako.

Oihane Urtizberea, Enara Elkano, Nahia Bueno, Leire Aragon eta June Bengoetxea

Euskal kultura sustatzeko asmo bateratutik sortu da Trikuharri elkarte berria

Trikuharri Elkarte Soziokulturala apirileko hilabetean zehar Irunen sortutako elkarte kultural berria da. Euskal kultura, ingurumena eta bestelako zenbait balore gizartera zabaltzeko helburuarekin martxan jarritako proiektua da. Txemi Moreda elkarteko presidenteak eta Ysabel Corral idazkariak elkarteak antolatutako lehen ekimenen inguruan mintzatu dira.

Zergatik erabaki zenuten Irunen elkarte berri bat sortzea?

Txemi: Irunek elkarte dinamiko eta dibertigarri berri bat behar zuela uste genuen, euskal kultura eta ingurumenaren lanketa helburutzat izango zuena. Bereziki, "Mari y el Akelarre maldito" jokoa antolatzeko helburuarekin sortu zen, momentuko osasun egoera dela eta ekintza datorren urtera atzeratu da. Beraz, elkarteak antzeko beste jarduera eta ekintzak aurrera eramateko asmoa du. Elkartea konfinamenduaren erdian sortu zen, etxeko egonaldian zehar sortutako ideia guztiei forma emateko.

Zertan desberdintzen zarete Irungo beste elkarte kulturaletatik?

Ysabel: Trikuharri Euskal kultura, mitologia eta Irungo historiaren inguruan lan egiteko asmoarekin sortu da. Irun gure bizitokia denez, gure inguruan gertatutako pasarteak ezagutzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Erraza izan zen elkartearen izena aukeratzea?

Txemi: Dolmenak historiaren zati luze baten lekuko izan dira. Beraz, harrien batasunak erakusten duen indarra gure elkartearen helburuak adierazteko aproposa iruditu zitzaigun. Euskal kultura lantzeaz gainera, ingurumenarekiko jarrera arduratsuak zabaldu nahi ditugu.

Zeintzuk dira elkartetik antolatutako diren lehen ekintza edo jarduerak?

Txemi: "La maldición de Herensuge" "survival night" gau jolasa antolatzeko asmoa genuen ere, baina, momentuz horrelako zerbait antolatzea ezinezkoa da. Hortaz, istorioa moldatu eta haurrentzako ipuin bat sortu dugu eta arrantzale eta sirena baten arteko ezinezko maitasunaren istorioa kontatzen da bertan. Liburuaren salmentaren bitartez elkartearentzako dirua bildu nahi dugu.

Non eskuratu daiteke liburua?

Txemi: Momentu honetan Iparralde hiribideko "Papel y +" eta Kale Nagusiko "El baul de las ideas" dendetan eskuratu daiteke 5 euroren truke.

Ysabel: Hortaz gain, beste saltokiren bat liburua saltzeko prest egongo balitz, poz-pozik ale batzuk eramango genizkioke salgai jarri ditzan.

Nola landuko duzue ingurumena zaintzeko jarrera arduratsuen sustapena?

Txemi: "Charlas con Mari" izeneko hitzaldiak antolatuko ditugu , haur zein helduentzat, zuzenean parte-hartzaileek Amalurrarekin eta bi pertsonaiekin hitz egiteko aukera izan dezaten. Naturarekin zerikusia duten gaia modu ezberdin eta era dibertigarrian lantzeko modua dela uste dugu.

Zenbait proiektu atzeratzea ezinbestekoa izan den arren, 8 giltzen jokoa antolatzeko moldatu zarete?

Txemi: Bai, "Geocaching" aplikazioaren bitartez jolasten da eta jokoaren helburua mundua mailan altxorrak aurkitzea da. Altxor fisikoa denez, iksui eta ikutzeko aukera ematen du, zure izen eta aurkikuntzaren egunarekin erregistratzeko aukera emateaz gainera.

"Elkartea konfinamenduaren erdian sortu zen, etxeko egonaldian zehar sortutako ideia guztiei forma emateko"

Txemi Moreda, Trikuharri elkarteko presidentea

Momentuko egoerarako jolas aproposa da, ezta?

Txemi: Bai, familiako kideekin eta aire zabalean egiten den jarduera delako. 5 pertsonako taldeetan egiten da eta 15 euroko prezioa du. Hasieran banatzen diren azalpen eta istorioa jarraituz, Irungo landa ingurua ezagutzeko aukera eskaintzen du. Oso amaiera polita du eta parte-hartzaileek sari txiki bat jasotzen dute probaren amaieran.

Ysabel: Momentuko egoera eta murriztapenak direla medio, familian jokatzeko oso jarduera aproposa da. Nik bi seme txiki dauzkat eta jokoa probatzeko irriketan nago.

Proiektu propioez gain, kanpotik datozen proposamenak jaso nahi dituzue?

Txemi: Bai, jardueraren bat antolatu eta legalki erregistratzeko entitate baten babesa izatea ezinbestekoa delako. Hortaz, gure baloreekin bat egiten duten proiektuak laguntzeko asmoa dugu. Beraz, jendea haien ideiak gurekin partekatzera animatu nahi dugu. Adibidez, buruhandi mitologikoak sortzen ari den gazte bat laguntzen ari gara bere proiektua aurrera ateratzeko.

Proiektuaz gainera, elkartean bazkide berriei harrera egiteko prest zaudete?

Ysabel: Momentuz elkarteko zuzendaritza eta bazkideen artean kide gutxi gara eta gure artean moldatzen gara gauzak aurrera ateratzeko, nahiz eta Txemik bere inguruan jende asko duen. Dena dela, elkartearen ateak zabalik daude gure helburuak parteka ditzaketen kide berrientzat.

Txemi: Trikuharri elkartearen izenarekin webgune propioa dugu, hau da, wwww.trikuharri.es . Hortaz gain, Facebook eta Instagram sare sozialetan kontuak dauzkagu. Bertan, interesekoa izan daitekeen informazio guztia partekatzen dugu. Era berean, bide horien edo infor@trikuharri.es helbide-elektronikoaren bitartez, pertsona interesatuek gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Urriaren 15 eta 16an Liburu Azoka Irungo Jenaro Etxeandia plazan

Urriaren 15ean Emakumezko Idazleen Eguna dela-eta, liburu azoka eta beste hainbat jarduera egingo dira, Jenaro Etxeandia plazan.

Bertan, liburuak saltzeko betiko karpaz gain, bi karpa erantsi jarriko dira, aurkezpenak egin eta liburuak sinatzeko eta beste hainbat jarduera aurrera eramateko.

Ordutegia: Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 20:00etara.

Irungo Udalaren webgunean Liburu Azokaren barruan egingo diren ekintza guztien inguruko informazioa topatuko duzu.

Gaztea zara eta proiektu bat sortu nahi

Martxan da Gaztegune Plus zerbitzu berria.

18-30 urte dituzten, beren proiektu propioa sortu nahi duten eta sorkuntza eta gauzatze prozesu osoan laguntza (prestakuntza, aholkularitza, laguntza ekonomikoak) behar duten gazteentzako eskaintza berria.

Gaztea bazara eta buruan bueltaka dabilkizun ideia bat baduzu, Gaztegune Plusen egi bihurtzen lagunduko dizugu.

Informazio guztia Gaztegune Plusen webgunean aurkituko duzu.

IGazteren Buletin Elektronikoa

Enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntariotzarekin lotutako informazio eguneratu guztia ezagutu nahi duzu?

Izena eman ezazu iGazteren buletinera, eta informazio guztia posta elektroniko bidez jasoko duzu. Interesatzen zaizun guztia eskura izango duzu!

Hortaz gain, Irungo iGazteren webgunean azken buletina irakurtzeko aukera aurkituko duzu beti.

Irungo iGazte
Irungo San Juan plazan kokatuta dago, CBA Kultur Gunean.
www.irun.org/igazte - igazte@irun.org - Telefonoa:943 505 444 - WhatsApp: 607 771 173

Urria Gaztelekuan

Gaztelekua bueltan da eta urria ekintza eta tailerrez beteta dugu, baina Topaguneetako arratsalde goxoei ere tartea utzi diegu!

Martindozenea Gaztelekuaren webgunean egun bakoitzerako prestatu duguna ikusteko aukera izango duzu!

Gogoratu osasun egoeraren ondorioz, Gaztelekuak COVID19ari aurre egiteko eta honen hedapenaren prebentzioaren bidean, neurri ezberdinak hartu dituela. Guzti hau xehetasun guztiekin, Kontingentzia Plana eta Baimen Orriekin batera webgunean irakurgai dago. Gainera, ekintza eta tailerretan azken momentuko aldaketak gerta daitezke.

Urriko bigarren hamabostaldia:
Urriak 15: Play 4, Frantics.
Urriak16: Cianotipia tailerra, Ibon Azpilikuetaren eskurtik.
Urriak 17: Kazadora kustomizazioa.
Urriak 20: Kitarra klasea.
Urriak 21: Parkour.
Urriak 22: Topagunea.
Urriak 23: Longboard tailerra.
Urriak 24: Hipika.
Urriak 27: Topagunea.
Urriak 28: Zirkoa.
Urriak 29: Asexora-T.
Urriak 30: Longboard tailerra.
Urriak 31: Hildakoen kluedoa.

Zeuk esan, haurtzarorako eta nerabezarorako laguntza zerbitzua

Euskadiko haurrei eta nerabeei zuzendutako laguntza-gunea da. Zeukesan-ek laguntza emateko telefonoa eta web-orrialdea dauzka.
Alde batetik, ZeukEsan-en telefonoa, 116 111, doakoa da (ez duzu ezer ordaindu behar) eta guztiz anonimoa.

Bestetik, Zeukesan web-orrialdea duzu eskura, eta blogak, gizarte-sareak, bideo kanala eta kontsulta-postontzi anonimoa ditu, telefonoz deitu ordez idatzi eta zer gertatzen zaizun kontatu nahi baldin badiguzu ere.

Deitu edo idatzi dezakezu:
Arazorik baduzu eta norbaitekin hitz egin behar baduzu.
Arazorik baduzu, edo buruan ?bueltaka? dabilzkizun gaiei buruz gure orientazioa edo aholkua behar baduzu.

Horrez gain, gugana jo dezakezu norbait beste norbaitez abusatzen ari dela ikusten baduzu (jazarpena, indarkeria edo bestelako erasoak?)

ZEUK ESAN
116 111
www.euskadi.eus/zeukesan



Urriak

15

Zure abenturaren bila: Biziminez

Zer: Josu Iztueta eta Antxon Arza, bi adiskide AEBko errepidean "amets txiki bat betetzen".

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrerak: Doan, tokiak bete arte.

Hizkuntza: Euskaraz.

Iraupena: 42 minutu.

17

Musika

Zer: Ainara LeGardon eta Xabier Erkiziaren eskutik "Res-cue. The archive in the mouth" disko-liburuaren aurkezpena.

Non: Oiasso erromatar museoa.

Ordua: 20:00etan.

Sarrerak: Doan, gonbidapenarekin.

Telefono-zenbakia: 943639353.

18

Irun Hiria Musika Banda

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 12:30etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Sarreren salmenta: Irungo Turismo bulegoan eta Amaia kultur zentroaren leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.

23

Zinema: Zumiriki

Zer: Zuzendaria aurkezpena egitera etorriko da Gipuzkoan egingo den pelikularen lehen emanaldira.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

25

Kontzertua: Geltokiak izarretara

Zer: Jabier Muguruzarekin batera oholtza egongo da musikari hauekin ere: Mikel Azpiroz, Jean-Marie Ekai, Mikel Artieda eta David Gomez.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 7,5 euro.

Sarreren salmenta: Interneten bidez, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia kultur zentroaren leihatilan ikuskizunaren egun berean.

27

KZguneko zuzeneko hitzaldiak

Zer: Mintza gaitezen... ezezagun handiei buruz.

Non: Online, KZgunearen webgunean.

Ordutegia: 18:00etatik 18:30etara.

Prezioa: Doakoa.

Parte-hartzeko: Sartu Youtuben, bilatu KZguneatic, jarraitu eta kanpaia sakatu zu abisatzeko.

Hizkuntza: Euskaraz.

Denbora-pasen emaitzak

X	R	D	T	V	V	C	I	F	W	Z	W	V	M
G	R	A	G	H	I	E	M	N	T	D	O	R	K
U	A	X	R	E	T	**M**	**A**	**N**	**E**	**X**	D	K	O
D	N	K	Z	W	A	H	T	G	**H**	**O**	**D**	**E**	**I**
F	E	X	D	I	A	J	N	G	J	D	U	W	O
B	**F**	N	G	X	J	Z	P	D	A	V	R	C	**K**
Q	**E**	K	P	U	E	Q	L	U	V	A	M	H	**H**
K	**R**	P	V	R	M	I	W	O	E	O	M	L	**A**
E	**M**	D	R	V	Z	D	H	L	G	X	R	**A**	**D**
Q	**I**	**I**	U	W	T	X	K	**E**	N	V	X	**M**	**I**
T	**N**	**R**	U	Z	T	I	H	I	**K**	A	W	**A**	**J**
A	D	**A**	S	G	H	A	I	Z	C	**H**	P	**I**	**A**
M	H	**T**	D	H	T	U	Y	V	G	O	**I**	**A**	X
G	N	**I**	U	K	X	V	H	B	W	X	Z	R	V

4	7	8	5	9	1	3	2	6
3	5	2	7	8	6	9	1	4
1	9	6	4	3	2	7	8	5
6	2	5	3	4	9	8	7	1
9	1	4	6	7	8	5	3	2
8	3	7	2	1	5	6	4	9
7	6	9	1	2	3	4	5	8
2	8	3	9	5	4	1	6	7
5	4	1	8	6	7	2	9	3

17:30 IREKIERA

18:15 ATERRIZA COMO PUEDAS

20:15 PULP FICTION

Versión Original V.O.S.E Subtitulada Español

Bizinema

BANG! BANG!

5,50€

SARRERA (BI PELIKULA)

URRIAK 17 - AMAIA KULTUR ZENTROA

SARRERAK SALGAI:

LUIS MARIANO-KO TURISMO BULEGOA

WWW.IRUN.ORG/ENTRADAS

fnac TINTA COMICS Coca-Cola Ayuntamiento Udala irun telepizza ROCK C.D. Hondarribia